



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea,
AITOR ELEXPURU EGANIA
2026/04/14



BERAKO UDALA

NIF: P3125000D

BERAKO ALKATEAREN EBAZPENA, LABIAGA IKASTOLARI DIRULAGUNTZA IZENDUNA EMATEN DIONA.

Berako Udalaren helbueruetako bat da euskarazko kalitatezko hezkuntza, aurrerakoi eta berritzailea sustatzea udalerrian. Alde horretatik, Berako Udalak azkeneko urteetan Labiaga Ikastola lagundu du, haren funtzionamendu, garbitasun, mantenimendu eta garraio gastuetarako laguntza emanez. Udalaren eta Labiaga Ikastolaren elkarlana ezinbestekoa da aipatutako helburua lortzeko.

2026rako onetsitako udal aurrekontuan 1-3239-48200 zenkakiko kontu-saila dago, "hitzarmena Ikastola" izenburuarekin eta 49.000 euroko esleipenarekin. Aurrekontua indarrean dago, behin betiko onespeneren iragarkia 2026ko otsailaren 9ko 28. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik.

38/2003 Legeak, 22.2 a) artikuluan, ezartzen du dirulaguntzak zuzenean eman daitezkeela baldin eta aurrekontuetan nominatiboki aurreikusiak badaude, eta hitzarmenetan jasotako moduan. Gainera, 28. artikuluan ezartzen du hitzarmenak ohiko tresna izanen direla izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko, eta hitzarmen horietan baldintza eta konpromiso aplikagarriak ezarri beharko direla. Bestalde, Dirulaguntzen 38/2003 Legearen Erregelamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), 65. artikuluan, arautzen du dirulaguntza izendunak emateko prozedura baita hitzarmenen edukia ere. Eta ildo beretik azaltzen da Berako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 9. artikulua.

Ikusita hitzarmenaren zirriborroa eta kontu-hartzailearen eta idazkariaren txostenak, 2026ko apirilaren 14koak.

Adierazitakoarekin bat etorritz, eta nire ahalmenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. 49.000 euroko gastua baimentzea, 2026ko gastuen aurrekontuko 1-3239-48200 partidaren kargura, "hitzarmena Ikastola" izenburupean.

2. Labiaga Ikastolari ematea 49.000 euroko dirulaguntza izenduna.

3. Berako Udalaren eta Labiaga Ikastolaren artean sinatu beharreko hitzarmenaren testua onartzea, dirulaguntza izenduna arautzen duena. Hitzarmenean ezarritakoa dirulaguntza emateko oinarri arautzailetzat hartuko da.

4. Dirulaguntza hau argitaratzea Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean, udal iragarki-taulan eta web orrian.

5. Ebazpen hau jakinaraztea Labiaga Ikastolari.

Beran, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.



SINATZAILEA

Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2026/04/14



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADPQ KUPK P3VH Q3R2

Resolución Nº 89 de 14/04/2026 "DIRULAGUNTZA IZENDUNA LABIAGA IKASTOLARI" - SEGRA 121236

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

1tik 1 orrialdea